

Autobabe Taldeak: Organigrama



Autobabeserako Batzordea

Dekanoa
Administrazio Burua
Dekanotza Taldea

Ohiko jarduerako eginkizunak:

- Larrialdietarako planaren analisisa egitea, abian jartzea, jarraipena egitea eta eguneratzea.
- Lehenengo eskuhartzerako taldeko kideak izendatzea.
- Ebakuazio guneak eta guneko ikasgela "nagusiak" zehaztea.
- Larrialdi egoeretan jardun behar duen kontrol gunea non egongo den zehaztea.
- Suteen aurkako sistemaren osagaien (sakagailuak, suitzalgailuak, SHA eta abar) okerreko erabilerak saihesteko neurriak proposatzea.
- Hiru hilabeterik behin biltzea, gubxienez.
- Segurtasun fitxak egokitzea eta moldatzea, ikastegiaren ezaugarriak aintzat harturik.

Larrialdietarako eginkizunak:

- Larrialdietarako zuzendariari laguntzea.

Larrialdietarako Zuzendaria

Fakultateko Dekanoa

Ohiko jarduerako eginkizunak:

- Langileak antolatzea, prestakuntza ematea, entrenatzea eta informazioa ematea.
- Segurtasun sistema eta ekipoen mantentze lanak bermatzea.
- Kanpokoekin harremanetan egotea: administrazioekin, kanpoko zerbitzuekin...
- Simulazioak prestatzea eta egitea.
- Campuseko laneko segurtasun eta osasun batzordeari autobabeserako batzordea eratu dela jakinaraztea, eta plana ezartzerakoan gertatzen diren gorabeheren berri ematea (saiakerak, ebaluazioak, simulazioak).
- Toki eta areto guztietara sartu ahal izango da.

Larrialdietarako eginkizunak:

- Gertakariaren tokira joatea, eta gertatutakoa edo istripua eta ondorioak ebaluatzea.
- Ahal den neurrian, itzaltzen ahalegintzea, lehenengo eskuhartzerako taldearen jarduerak koordinatuta.
- Hala behar denean, ebakuazioa antolatzea. Alarma orokorra piztea eta ebakuazio plana abian jartzea.
- Kanpoko bitartekoei laguntza eskatzea: polizia, suhiltzaileak, sorospen zerbitzuak eta abar.
- Ohiko jarduerari berriro ekitea.
- Aginte eta komunikabideei jakinaraztea, prentsa kabinetearen bidez.

[Kontrol Gunearen Arduraduna](#)

Autobabeserako Batzordeak izendatutako Lokala larrialdiak kudeatzeko.

Atezaintzan kokatuta: Telefonoa 945013123

Larrialdietarako eginkizunak:

- Lehenengo eskuhartzerako taldeko kideei eta larrialdietarako zuzendariari segituan deitzea.
- Larrialdietarako zuzendariaren aginduak betetzea (alarma orokorra jo, kanpoko taldeei dei egin, barruko talde edo langileei dei egin...).
- Lehenengo eskuhartzerako taldeko beste kide bati honako hauek berri ematea:
 - Ateak ireki beharra, ebakuazioa errazteko.
 - Instalazioen giltza orokorrak ixteko beharra, hurbil egonez gero.

[Lehenengo Eskuhartzeko Taldeko Gainerako Taldeak](#)

Ikastegiko atezainak

Ohiko jarduerako eginkizunak:

- Larrialdietarako zuzendariari behar denean laguntzea.
- Jendeak segurtasun arauak eta ekipoak errespetatzeko ahalegina egitea.
- Ebakuazio bideak, seinalizazioa eta larrialdi irteerak behar bezala mantentzeko lanak egin egiten direla bermatzea.
- Segurtasun ekipoen eta ikastegiaren segurtasunean eraginik izan dezaketen instalazio orokorren inguruan izandako edozein gertakari jakinaraztea.

Larrialdietarako eginkizunak:

- Gertakari edo istripuaren tokira segituan joatea.
- Arrisku pertsonal larriarik gabeko egoera bada, lehenengo eskuhartzerako taldeak ahaleginak egingo ditu egoera ebatzi eta arintzeko, guxien dela, larrialdietarako zuzendaria bertaratu eta bestelakorik adierazi artean. Helburu hay lortzeko hartu beharreko neurrien artean, honako hauek azpimarra daitezke:
 - Itxi beharrezko instalazioen giltzak ixtea.
 - Itzaltzeko ekipoak erabiltzea, larrialdia ahalik eta gehien arintzeko.
 - Larrialdia inguruko sektoreetara hedatzea ez dadila ekiditea.
 - Eremua inguratzea, behar izanez gero.
 - Hala beharko luketen pertsonen sorospena eskaintzea.

[Ebakuazioko Arduradunak](#)

- Ikasgeletan irakasleak arduratuko dira alarma jotzeaz eta lokala ebakuatzeaz larrialdia dagoenean.
- Autobabeserako Batzordeak zehaztuko du zeintzuk diren ebakuazio guneak eta zein den gune bakoitzeko lokal "nagusia".
- Ebakuazio gune bateko lokal nagusian dagoen irakasleak bermatu beharko du gune osoa ebakuatzen dela.

Larrialdietarako eginkizunak:

- Kontrol guneari alarma ematea, larrialdia bere ardurapean dagoen gunean gertatuz gero.
- Gunea ebakuatzea, lehenengo eskuhartzerako taldea iritsi bitartean. Alarma orokorraren ondorioz ebakuazioa eraikin osoa husteko planaren parte bada, arduradunak bere gunean zeuden pertsonak eraikinaren kanpoko aldeko elkargunera gidatuko ditu.
- Elkargunera iritsi ondoren, bere taldeko kideak zenbatuko ditu, eta, norbait falta bada, horren berri emango dio larrialdietarako zuzendariari.
- Norbaitek zauririk badu edo zorabiorik, pertsona hori lasaituko du, osasun arloko pertsona gaituren bat iristen den bitartean.